



## Christian Heule suitzarrak irabazi du Asteasuko VIII. Ziklo-krosa

**NAZIOARTEKOA** ▶ Euskaldunen artean Erlantz Uriarte nagusitu zen, sailkapenean 9. izan zelarik ▶ 6



Ezker-eskuin: Radomir Simonec (bigarrena), Christian Heule eta Kamil Ausbuher (hirugarrena). NEREA URBIZU

**BALIARRAIN-OREXA** ▶

### Begirada berezia biztanlerik gutxien dituzten herriei

Bi alkateek aldeko eta aurkako faktoreak aztertu dituzte ▶ 2-3

**ZAS**  
soinu ikastaroa  
Informatika musikala (Cubase)  
Grabaketa eta masterizazio profesionala.  
P.A. eta monitoreak  
Eta aber  
943 65 35 35  
[www.sointek.net](http://www.sointek.net)



N. URBIZU

### «Euskal presoen egoera salatzeko» gose greban

**TOLOSA** ▶ Askatasunak deituta, musika eskolan eskualdeko 12 lagunek ekin zioten atzo goizean; igandean amaituko dute manifestazio bat eginez, 19:30ean ▶ 7

**IRURA** ▶

### Lore Amenabar Arrasateko Eskusoinu Lehiaketan ariko da

Jaialdia sailean lehiatuko da 11 urteko musikaria, Amaia antzokian ▶ 7

**OKINDEGIA**  
**GOZOTEGIA**  
**ERROTATXO**  
Euskal herria, 26 • Ibarra  
Tel.: 943 67 40 53

BALIARRAIN-OREXA ▶ GIZARTEA

# Txikien handitasuna

Baliarrainek orain arte Orexak zuen biztanle gutxieneko 'tituluaren' lekukoa hartu berri du; bi herrietan aldaketa horiek eragin dituzten faktoreak aztertu dituzte herriko bi alkateek



Baliarrainek biztanleak galdu dituela diote datuek baina bazkarietara jendea biltzen dela bistakoa da. HITZA

MARCELINO DORRONSORO ▶ BALIARRAINGO ALKATEA

## «16 etxebizitzak eraikuntzak jende berria ekarriko du herrira»

Azken urteotan hamabost biztanle galtzeak ez dio inori pozik eragiten baina egoerari buelta emango diotenaren itxaropenarekin aurkitu du Hitzak Marcelino Dorronsoro alkatea.

**Noiz jakin zenuten biztanleriaren arabera behintzat Gipuzkoako herririk txikiena zinetela?**

Guk hori aspaldidanik aurreikusia genuen. Izan ere, Ibiurko urtegiaren eraikuntzak izango duen ondorioetako bat hainbat etxebizitzaren eraiketa

izan da eta noski, etxe horietan bizi zirenek, 15 lagun zehatz esateko, beste irtenbideren bat bilatu behar izan dute Baliarraindik kanpo. Hori dela eta, bagenekien biztanleria galduko genuela eta herririk txikiena izatera pasako ginela. Ez genekiena zen noiz gertatuko zen eta orain dela gutxi jakin da Orexak guk baino biztanle gehiago dituela.

**Zein faktorek izan dute eragina biztanleriaren gutxitze honetan?**

Esan bezala Ibiurren eraikuntzak eragin zuena izan du. Lan horiek hasi zirela 6-7 urte igaro dira jada eta nahiz eta hasiera batean gehiegi ez nabaritu, epe luzera agerian geratu dira lan horiek biztanleriaren beherkadarengan izan duten eragina. Zerbakietan isladatzen da aipatutakoa egokien; izan ere, lanak hasi aurretik Baliarrainek 105 biztanle zituen eta gaur egun 95 gara.

**Etxeak egiten ari dira. Horrek biztanlegoari bultzada na-**

**barmena ematea espero al da?**

Dudarik gabe. Une honetan 16 etxebizitza berri eraikitzen ari dira eta horrek bultzada garrantzitsu bat emango dio herriri. Baina ez da espero berehalako hazkunde bat. Izan ere, etxebizitza horiek hemendik urte pare baterako amaituta egotea espero da gutxigorabehera eta orduan hasi gaitzke nabarmentzen espero dugun hazkunde hori.

**Etorkizunari begira ba al duzue biztanleriaren hazkunde bultzatzeko egitasmoren bat abian jartzeko asmorik?**

Momentuz ez. Orain eraikitzen ari diren 16 etxebizitzekin nahikoa dugu oraingoz. Eskuarterean dugun agendaren azterketa burutzen ari gara eta oraingoz ez dugu inongo egitasmorik abian jarriko. Hori bai, etorkizunean herritarrentzat onuragarria izan daitekeen egitasmoren bat sortuko balitz ez dugu baztertzeko aurrera eramatea. ◀

JULEN GOIKOETXEA

**U**rte askotan zehar izan da Oresa tolosaldeko eta Gipuzkoa osoko herririk txikiena biztanleriari dagokionean. Baina duela gutxi jakin ahal izan denez, gure eskualdeko beste herri batean Orexan baino jende gutxiago bizi da. Baliarrain da herri hori eta gaur egun 95 bizilagun ditu;

Urteetan atzera eginez, Baliarrain lehen aipamena XIV mendean aurkitzen dugu Tolosa eta Orendain aipatzen diren dokumentu batean. Baina

Orexak berriz 111. Batek baino gehiagok pentsa lezake ordea gaur egun gisa horietako herri txikietatik jendeak ihes egiteko ohitura duela herri handiagotara. Horrelako kasuetan beti esaten da komunikazio eskasa duten herriak direla, aisirako inongo baliabiderik gabeak direla... Baina horren aurrean, bada bestelakorik pentsatzen duenik ere; izan ere badira herrietatik herri txikietara lasaitasun bila etortzen diren familiak.

Baliarrainen kasuan biztanleriaren hazkundea datozen urteetan ematea espero da. Izan ere, 16 etxebizitzak eraikuntza lanak abian dira jada eta horrek datozen urteei begira hazkunde esanguratsu bat ekarriko duela aurreikusten da. Izan ere, azken urteetan guztion ahotan ibili den Ibiurko urtegiak eragina izan du biztanleriaren murrizketa horretan. Urtegiaren eraikitze lanak zirela medio hainbat etxe bota egin behar izan dituzte eta hori dela eta bertan bizi ziren 15 baliarraindarrek herria utzi behar izan dute. Baina urteak aurrera egin ahala, berriz lehenengo biztanle kopuruetara, edo zergatik ez, handiagotara gerturaztea dute helburu baliarraindarrek.

Urteetan atzera eginez, Baliarrain lehen aipamena XIV mendean aurkitzen dugu Tolosa eta Orendain aipatzen diren dokumentu batean. Baina



16 etxebizitzak bi urteren buruan amaituta egotea espero da. J.G.

### iragarki laburrak ▶

#### LANA

**Sukaldariak** eta laguntzaileak behar dira ospitale eta ikastebeetan.  
943 44 48 66.

**Administrari laguntzaileak** behar dira Anoetan, Errenterian, Irunen eta Hernanin. Telefono zenbakia: 943 44 48 66.

1615. urtera arte Baliarrain Tolosarekin elkartuta egongo da. Behin independentzia lortuta Abaltzisketa Amezketak eta Altzorekin batera, *Amezketako Batasuna* deituriko elkarte osatuko du Gipuzkoako Batzar Nagusietan herri txikien interesak defendatzeko asmoarekin. Gauzak horrela, XIX. mendean Espainian egin zen probintzia banaketa burutu arte Baliarrainek ez zuen udalerririk izendapena jaso. Hala ere, 1967. urtean eta arrazoi ekonomikoek eraginda Orendain eta Altzagarekin *Iruerrieta* izena eman zitzaion udalerrira osatu zuen eta 1991. urtean banandu ziren.

Orexaren kasuan aldiz Baliarraingoaren aurkako joera eman dela esan dezakegu. Izan ere, bailarako eta probintziako biztanle gutxieneko herria izateari utzi dio eta horrek bere alde zerbait esaten duela ukatzen da. Historiari begirada bat emanaz, Orexa 1852. urterarte Tolosarekin elkartua egon zen. Ordurarteko batasun hori, Tolosak 1850. urtetik aurrera hartutako hainbat erabaki Orexaren adostasunik gabe hartu izanak bidali zuen hankaz gora. Harrezkeraz, Orexa erabat burujabea da.

Hala eta guztiz ere, orexarrek mendeetan zehar izan dituzte auziak inguruko herriekin. Esaterako gazteluarrekin, lizarzarrekin, bai eta berastegiarrekin ere.

Historiako datu horiek albo batera utzita, gaur egun eskualdeko bi herri txikienetan badira hainbat berdintasun. Bi herrietan bizi den biztanlegoaren gehiengoak herrietatik kanpo egiten du lan eta bertan lan egiten dutenak nekazaritzatik bizi dira, salbuespenak salbuespen. Hezkuntzari dagokionean, Baliarrainen haurreskola bat dago eta Orexan haurtzaindegi bat.



Orexaren hazkundearen faktore bat jaiotza-tasa dela garbi uzten duen adibide bat. J. GOIKOTXEA

Horrek dakarren ondorioa da bi herrietako haur eta gazte-txoek inguruko herrietako ikastetxeetara joan behar izaten dutela oinarritzko ikasketak burutu ahal izateko. Baina hala ere, bi herri horietako biztanleek badute harro egoteko arrazoi ugari. Izan ere, probintzia osoko txokorik ederrenetakoa dituzte etxe ondoan, beste hainbatek horrelako parajeak ikusi ahal izateko kilometro mordo egin behar duen bitartean. Beraz, tamainuz herri txikiak izan arren, handien inbidiarik gabe bizi dira Orexa eta Baliarraingo bizilagunak. Izan ere, paraje horietan bizitzeari ez dio herriko inork uko egin nahi.

ARITZ LULOAGA ▶ OREXAKO ALKATEA

## «Jaiotza-tasaren gorakadak eragin nabarmena izan du hazkunderan»

Baliarraingoen egoerarekin alderatuta, kontrako joera izan du azkenaldian Orexako biztanleriak. Jasandako aldaketek eta etorkizunari begira dituzten egitasmoei buruz mintzatu da Aritz Luloaga alkatea.

**Nondik jakin duzue jada ez zaretela, biztanleriari dagokionean, Gipuzkoako herririk txikiena?**

Ez dugu inongo datu ofizialik jaso. Guk jakin genuen 100 biztanleko muga gainditu genuela eta bide batez Baliarrainek 100 biztanleko kopurutik behera egin zuela esan ziguten. Modu horretan jakin genuen.

**Gaur egun zenbat biztanle ditu Orexa?**

Une honetan 111 biztanle gara Orexako herria osatzen dugunak.

**Zerk eragin du hazkundera hau?**

Alde batetik jaiotza-tasaren gorakada aipatu behar da. Faktore hori oso garrantzitsua izan da Orexaren hazkunderan. Baina ez da bakarra izan. Izan ere, herrian etxeak eraikitzen ari dira eta horrek ere biztanleriari gora egitea dakar ezinbestean. Gainera, azkenaldian orain arte Orexa bizi ez arren,

herrian familia duten hainbat gazte bertara etorri dira bizitzera eta horrek ere lagundu du. Baina lehen esan bezala herrian jaio diren haurren jaiotzak bultzatu du hein handi batean 100 biztanleko muga hori gainditzea.

**Etorkizunari begira, Orexako Udalak ba al du inongo egitasmo edo aurreikuspenik?**

Esan dezakegu etxeak egiteko aukera ez dugula baztertzen. Hori bai, egitasmo hori aurrera eramatekotan epe luzera izango litzateke. Orain momentuan eraikuntza lan batzuk badira abian. Baina epe luzera ikusiko bagenu herrian etxeak

eraikitzeo eskaera handi bat legokela, ez dugu baztertzen lurren birkalkifikazioaren bat egin eta lur eraikigarri gehiago ahalbidetzea. Guzti horretaz gain, jaiotza-tasak oraindik goian mantentzea espero dugu Orexako biztanleriaren hazkundera goranzko joera mantendu dezan. ◀



Hezur haragizkoek gain Orexan bada harrizko 'biztanlerik' ere. J.G.

**Tolosako Udala**

IRAGARKIA

Udalbatzak, 2006ko azaroaren 28ko Osoko Bilkuran, gehiengo absolutu legalaren aldeko botoekin, honako hau erabaki zuen:

**LEHENA:** 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera ziklo integralaren kudeaketa Gipuzkoako Ur Kontorsioarekin batera eskaintzea era kontorsiatuan.

**BIGARRENA:** Uraren ziklo osoari dagokion zerbitzua arautzen duen ordenantza onartzea, eta Gipuzkoako Ur Kontorsioari baimena ematea hura gaurkotzeko edota aldatzeko, egoki irizten duenean.

**HIRUGARRENA:** 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera Gipuzkoako Ur Kontorsioak onartu dituen tasak onartzea, eta Gipuzkoako Ur Kontorsioari baimena ematea tasa horiek gaurkotzeko, tarifen egitura aldatu gabe, 2/2004 Foru Arauaren 7.2 artikuluko ezarritakoari jarraituz.

Espedientea jendaurrean jartzen da 30 laneguneko iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, interesatuek aztertzeo eta dagozkion erreklamazio eta iradokizunak aurkezteko.

Espedientea Udal honetako Idazkaritzan begiratu ahal izango da.

**Tolosan, 2006ko azaroaren 29a**  
**ALKATEA - Jokin Bildarratz Sorron**

**iragarki laburrak ▶**

**LANA**  
**Iturgina.** Iturgin lanetarako persona bat behar da.  
**656 41 68 08.**

**SALGAI**  
**Autoa.** Bmw M3a. Urdina, 286 zaldi, 1995 urtekoa. 153.000km liburuarekin. 18ko llantak eta tebxua. Egoera oso ona. 14.000 euro. Deitu 943 65 41 43ra.



ASTEASU ▶ NAZIOARTEKO VIII. ZIKLO-KROSA

# Zortzi itzuli eginez Christian Heule suitsarra garaile

Euskaldunen artean Erlantz Uriarte nagusitu zen, aldi berean, sailkapen nagusian bederatzigarren eginez



Christian Heule suitsarra izan zen garaile, atzoko Asteasuko ziklo-kros proban. NEREA URBIZU

## ESTI EZEIZA

Atzo jokatu zen Asteasuko VIII. Ziklo-krosa. Maila altuko txirrindulariak lehiatu ziren Elizmendi auzoan, eta denen artean onena Christian Heule izan zen. Suitsarra bere herrialdeko txapelduna izan da aurten 8. UCIko sailkapenean. Berotze-saioetan euria egin bazuen ere, proban erosoago korri egin ahal izan zuten txirrindulariek.

Elite mailako Heule lehenengo itzulian izan ezik, proba guztian zehar aurretik joan zen, eta denera, zortzi itzuli burutzea lortu zuen. Bigarren postua eskuratzeko berriz, lehia handia egon zen Txekiar Errepublikako bi kirolariren artean: Radomir Simun eta Kamil Ausbuher. Hurrenez hurren eskuratu zituzten podioko bi lekuak. De-



Erabat zikinduta bukatu zuten proba txirrindulariek. NEREA URBIZU

## SAILKAPENA ▶

### MUTILAK

#### Elite mailakoak

1. Christian Heule	8 itzuli
2. Radomir Simonec	+ 26"
3. Kamil Ausbuher	+ 31"
4. Isaac Suarez Fernandez	+ 1'04"
5. David Willemsens	+ 3'00"
6. Wesley V. Der Linde	+ 3'14"
7. David Meyes	+ 3'40"
8. Jan Chrobak	+ 4'03"
9. Erlantz Uriarte Okamika	+ 4'06"
10. Vaclav Metlicka	+ 4'59"

### Kadeteetan

1. Mikel Elorza
2. Ander Altube
3. Julen Kosta

### Jubeniletan

1. Jon Ander Manjon
2. Jon Izagirre
3. Igor Merino

### Euskaldunetan

1. Erlantz Uriarte
2. Unai Yus
3. Gorka Izagirre

### NESKAK

#### Open maila

1. Jone Mujika
2. Clot Girando
3. Saioa Olite

### Kadeteetan

1. Tania Kosta
2. Saioa Trebiño

nera, 45 pertsonak hartu zuten parte atzo, zortzigarren edizio honetako elite mailan.

Euskaldunei dagokionean, Erlantz Uriarte bizkaitarra izan zen garaile, eta 21 urte azpikotan ere bera izan zen irabazlea. Sailkapen orokorrean aldiz, bederatzigarren postuan geratu zen.

Nesketan bi kategoria aritu ziren zirkuitoan, Open mailak eta kadeteak. Aipatutako lehenengo mailan sei neskek hartu zuten parte, eta hauetatik onena Jone Mujika elgetarra izan zen. Bigarren postuan-frantziar bat geratu zen, Clot Girando, hain zuzen ere. Eta podioko hirugarren postua berriz, Debabarrenako Saioa Oli-terentzat izan zen.

## TOLOSA ▶

### Hilaren 16an Gabonetako kontzertu berezia

Tolosako Orfeoia, urtero bezala, Gabonetako kontzertua eskainiko du hil honen 16an, 20:30ean Santa Klarako elizan. Beraiekin batera izango da Iruñeko Concerto orkestra. Hala ere, giroa berotzen joateko, etzi, 23:00etatik aurrera, Euskal Telebistan ikusi ahal izango da Tolosako Orfeoia irailan, Tolosaren 750. urteurrena ospatzeko eman zuen kontzertua.

## TOLOSA ▶

### Hidraulika ikastaroak langileentzat

Tolosaldea Goi Mailako Heziketa Institutuak antolatutako *Hidraulika, erregulazio elementuak* izeneko ikastaroa astelehenean hasiko da. Hau, langileei zuzendua dago, eta doakoa izango da. Izen-ematea ikastetxean bertan egin beharko da, edo 943 65 11 47 telefonora deituta.

## VILLABONA ▶

### EHNAREN tramitazioa atzeratuta dute

Villabonako Bai Euskal Herriari taldeak, abenduko EHNAREN tramitazio eguna atzeratu egin du. Hil honen 16rako Udalbiltzak antolatutako duen nazio eskubideen egunarekin bat eginez. Asteburu horretan zehar tramitatu ahal izango da nortasun agiria. Ordutegia honakoa izango da: hilaren 16an, Villabonako Kultur Etxean, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara. Amasan berriz, Kultur Etxean egingo da: egun berean 16:00etatik 18:00etara eta abenduaren 17an, 11:00etatik 13:00etara.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

## Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

### ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

POLITIKA ▶

# Eskualdeko hamabi gose grebalariek egun bat egin dute

Tolosako musika eskolan igandera arte egongo dira eta protestarekin bukatzeko manifestazioa egingo dute



Gose greba egitea erabaki duten kideetako batzuk, Pablo Gorosabel kaleko musika eskolan. N. URBIZU

ERREDAKZIOA

Atzo goizean, 08:00etan, hasi zuten eskualdeko presoan «egoera txarraren» aurkako gose greba, bai eta Iñaki de Juana preso donostiarriari «elkartasuna adierazteko» ere. Tolosako Pablo Gorosabel kaleko musika eskolako gela batean daude gose grebalariek.

«Eskualdeko lau preso politikok dagoeneko haien kondanaren hiru laurdenak bete dituztela eta orokorrean euskal

presoei jasaten dituzten esku-bideen urraketa salatzeke ekintza da egiten ari garena», adierazi zuten atzokoan grebalariek. Askatasunak aurreko asteko prentsaurrekoan gose greba 7 bat lagunek egingo zutela adierazi zuten, baina azkenean 12 bat lagunek hartu dute gose greba egiteko erabakia. Igandera bitarte izango dira, ura edanez bakarrik. Gose grebalariek Tolosakoak, Ibarrakoak, Villabonakoak eta Zizurkilgoak dira.

Igandean bertan manifestazio bat egingo dute 19:30ean, «presoan egoera larria delako, eta jendeak jakin dezan igandean, zergatik egin genuen gose greba», zioten musika eskolan eskualdeko presoekin bat egiten zutenek. Leloa, bes-teen artean, *Errepresio politikorik ez: baldintza demokratikoak orain* izango da.

Egunak han pasatzeko funtsezkoak direnak eraman dituzte: koltxoi bana, ura eta mahai jokoren bat edo beste.

GUTUN@K ▶

## Protestaldiak espetxean

Iñaki de Juanaren egoerarekin oso kezkatuta daude, Jeaux-ko euskal preso politikorik: Oier Goitia, Urtzi Zubizarreta eta Haimar Altuna (azken hau Lizartzakoa), eta bere bo-

rrokarekin bat eginez, ahal den neurrian, berarekin solidario izanez. Azaroaren 27tik aurrera, protesta gisa uko egiten diete kartzelan ematen dizkieten janari guztiei. Gainera, egoeraren arabera, gauzek gogortzen joateko asmoa dute.

KOLDO ALTUNA ▶ LIZARTZA

IRURA ▶ MUSIKA

## Lore Amenabar soinu-jotzailea gaur Arrasaten

Amaia antzokian ariko da gaztea, Hauspoz elkarteak antolatzen duen XIX. Jaialdian

NEREA URBIZU

Gaur Arrasateko Nazioarteko Eskusoinu Lehiaketan Loatzoko musika eskolako Lore Amenabar irurarrak hartuko du parte. Atzo hasi zen Hauspoz Euskal Herriko Akordeoi elkarteak antolatzen duen txapelketa eta hiru egun irautesen ditu osotara.

11 urteko gaztea lehenengo aldiz ariko da txapelketan eta bi obra joko ditu Arrasateko Amaia antzokian.

Arrasateko txapelketan mundu mailako onenatarikoa ikusi ahal izango dira. Txapelketak hiru atal edo kategoria ditu: nazioartekoa, Gipuzkoakoa eta Jaialdia. Azken honetan hartuko du parte Amenabarrek, XIX. Jaialdian, hain zuzen. Honetan bi maila bereiztu dituzte: 8 eta 19 urte bitartekoak eta 10 eta 12 urte bitartekoak.

Irurarraren mailakoen kasuan, derrigorrezkoa den

obra bat zuten jotzeko, biren artean aukeratzeko: *The mountain* edo *Polka Pik*. Irurarrak jendearen aurrean lehe-na joko du. Horrez gain, parte-hartzaileek beraiek aukeratu-tako bat jo behar dute. Soinujoleak Gian Felice Fugazzaren *Tocata eta Fuga* prestatu du.

Bere kategorian 30 ikasle eta soinu-jole gazte izango dira. Serbia, Errusia, Ukraina, Frantzia, Finlandia, Alemania, Euskal Herriko eta Txinako ja-torria dute parte-hartzaileek. Horien artean gaur egungo 21 soinu-jotzaile onenatarikoa izango dira.



Loatzoko soinu-jole batzuk. I. G.

**hitza** *lagunen*  
**txokoa**

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5\*-eko BEHERAPENA izango duzue EROSKETETAN

\*Promozio hau ez da beste beharapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu **902 82 02 01** telefono zenbakira

## Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

**Avalon**  
osagaiak  
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

**honekin**  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 22 44

**kanikak**  
San Frantzisko, 21 • Tolosa  
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 04 62

**ILUMINAZIOA**

**SHANTI KIROLAK**  
Rondilla, 11  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 74

**MUGAR**  
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 56 85

**LIZARRIBAR**  
OINETAKOAK  
Arostegieta kalean  
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko abenduaren 7a, osteguna ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

15

hotzera

13

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA  
 (balantza argizteko, harpidetun egiteko...)

**902 82 02 01**

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Ibarra.** Belabieta Udal kirolegia zabalik egongo da gaur, bihar eta etzi, goizeko 10:00etatik 13:00etara bitarte.

**Tolosa.** Txuletaren festa, Zerkausian, 20:00etatik 22:00etara. Orue, Julian, Burruntzi eta Nikolas erretegiatiko sukaldariak afaria eskainiko dute. Botarri, Bidebide, Betti-Alai eta Astelena jatebeteetan ere emango dituzte afariak. Igandera bitarte izango da zabalik (larunbatean eta igandean, bazkariaK izango dira).

**ZINEMA**

**Tolosa.** 17:00etan *Azti Ikaslea* filma ikusteko aukera izango da, Leidor aretoan. Sarrerak 2 euro balioko du.

**Tolosa.** Zine-forumean Paul Greengrass zuzendariaren *United 93* filma izango da ikusgai Leidorren, 19:30etan eta 22:00etan. Sarrerak 2 euro balioko du.

**ERAKUSKETAK**

**Alegia.** Hilaren 10era arte Pilarxo Elosegiren margolanak Alegiko jubilatuen tabernan izango dira, asteartetik igandera, tabernaren ordutegiaren baitan.

**Tolosa.** *Esperientziak*, XX. mendeko memoriaren berreskuratze proiektuko elkarrizketen bideoak ikusgai, Aranburu jauregian eta Gipuzkoako Artxibo orokorrean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.  
**Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 38 49.

**IRRATIA**

**Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)**  
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...  
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).  
 20:00-21:00. *Irauli uhinak*.  
 21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.



Zizurkilgo hainbat dendek ireki zuten atzoko goizean. Adibide gisa, lorendenda eta autozerbitzu janaridenda ditugu. U. URRIBU

# «Ez da gure konstituzioa»

**TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶** Eskualdeko zenbait lantoki, denda nahiz ikastetxetan lan egun arrunt bezala igaro zuten atzokoa



Laskorain ikastolan ekitaldiak egin zituzten protesta moduan. Irudietan, dantza saioa eta hitzaldia. HITZA

**ERREDAKZIOA**

**A** benduaren 6a, Espainiako Konstituzioaren eguna. Ofizialki Hego Euskal Herrian jai eguna bada ere, lantegi, ikastetxe eta saltoki askotan, baten batzuk lan egun arrunt modura igarotzea erabakitzen dute. Eskualdekoei dagokionean lore-denda, estanko eta zenbait janari-denda aurkitu zitezkeen zabalik. Bestalde, Laskorain ikastolan Tolosaldeko hogeii ikasle inguru elkartu ziren Espainiako konstituzioa ez ospatzeko, eta protesta egiteko.

Konstituzioarekiko desadostasuna adierazteko modu bat da hau. LAB sindikatuko esanetan, gero eta lantegi gehiagotan egiten dute lan abenduaren 6an. Bestalde, Kontseiluarekin elkarrizketetan ari dira, «datorren urtean, euskal egutegi bat izan dezagun». Honi esker, abenduaren 6ko ospakizuna ez litzateke egingo Euskal Herrian, eta bere ordez, beste jai-egun bat aukeratu litzateke.

**AGURRAK ▶**

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

▶ HITZaren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZaren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

**hitza** agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...